




Biztanleria proiektzioak

Emitzen analisia



Eustat

2031

Elaboración:

Eustat
Euskal Estatistika Erakundea
Instituto Vasco de Estadística (Eustat)

Argitaraldia: V-2017

Argitalpena:

Eustat
Euskal Estatistika Erakundea
Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet: www.eustat.eus

© **Euskal AEko Administrazioa**
Administración de la C.A. de Euskadi

BIZTANLERIAREN PROIEKZIOAK 2031 EMAITZEN AZTERKETA

Aurkibidea

1	Fenomeno demografikoen analisia eta proiekzioa	1
1.1	Heriotza-tasa.....	1
1.2	Ugalkortasuna.....	6
1.3	Migrazioak.....	12
1.3.1	<i>Immigrazio-fluxuen joera eta proiekzioa</i>	<i>12</i>
1.3.2	<i>Emigrazioa Estatuko gainerako lurraldeetara eta atzerrira</i>	<i>15</i>
1.3.3	<i>Lurralde historikoen arteko barne-mugimenduak</i>	<i>17</i>
2	Euskal autonomia erkidegokoko eta lurralde historikoetako biztanleria 2016-2031 .	20
2.1	Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren garapena eta proiekzioa.....	20
2.2	Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren egitura-alaketak adinen arabera.	23
2.3	Lurralde historikoen etorkizuneko dinamika demografikoa. 2016-2031	28

Taulen aurkibidea

1.1. taula:	Bizi-itxaropena jaiotzerakoan eta 65 urterekin, Euskal Autonomia Erkidegoan. 1980-2015.	2
1.2. taula:	Guztizko ugalkortasun-tasa sintetikoaren eta amatasunaren batez besteko adinaren bilakaera, ordenaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 1975-2015.	7
1.3. taula:	Ugalkortasun-tasak jaiotakoaren ordenaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 1995 eta 2015 (milakotan)	9
1.4. taula:	EAEko eta lurralde historikoetako ugalkortasun-indize sintetikoaren bilakaera eta proiektzioa. 2000-2030.	11
1.5. taula:	Emigrazioaren indize sintetikoaren bilakaera Estatuko gainerako lurraldeetara, sexuaren arabera, EAetik eta lurralde historikoetatik. 2007-2015. (egoiliarak, milakotan).....	16
1.6. taula:	Barne-migrazioko indize sintetikoaren bilakaera sexuaren arabera lurralde historikoetan. 2001-2015.	18
2.1. taula:	Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren eta fenomeno demografikoen bilakaera eta proiektzioa. 2010-2031	21
2.2. taula:	Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren bilakaera eta proiektzioa adin-talde handien arabera. 2001-2031.	24
2.3. taula:	Euskal Autonomia Erkidegoko 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren eta haien barne-egituraren garapena eta proiektzioa. 2001-2031.	26
2.4. taula:	Euskal Autonomia Erkidegoko 65 urteko eta hortik gorako biztanleen osaketaren bilakaera eta proiektzioa. 2001-2031.	28
2.5. taula:	Lurralde historikoetako biztanleriaren bilakaera eta proiektzioa. 2001-2036.	29
2.6. taula:	Lurralde historikoetako biztanleria, adin-talde handien arabera. 2016 eta 2031.....	31

Grafikoen aurkibidea

1.2. grafikoa: Hiltzeko probabilitateak, sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2000 eta 2014.....	4
1.3. grafikoa: Bizi-itxaropenaren garapena eta proiektzioa jaiotzerakoan eta 65 urteko adinean, sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 1981-2030.....	5
1.4. grafikoa: Bizi-itxaropenaren garapena eta proiektzioa jaiotzerakoan, Euskal Autonomia Erkidegoan eta lurralde historikoetan. 1989-2030.....	5
1.6. grafikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko ugalkortasun-tasa sintetikoaren eta beste autonomia-erkidego batzuetakoaren arteko konparazioa. 1975-2015.....	8
1.7. grafikoa: Bost urteko ugalkortasun-tasak Euskal Autonomia Erkidegoan. 1975-2015.....	9
1.8. grafikoa: Ugalkortasun-indize sintetikoaren eta amatasunaren batez besteko adinaren bilakaera. Euskadi eta lurralde historikoak. 1975-2015.....	10
1.9. grafikoa: Ugalkortasun-tasen garapena eta proiektzioa, amaren bosturteko adin-taldearen arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2000-2030 (milakotan).....	11
1.10. grafikoa: EAEra Espainiako gainerako lurraldeetatik etorritako immigranteak, adin sinpleko, 2016 eta 2030 artean.	13
1.11. grafikoa: Atzerriko immigrazioari dagozkion patroiak EAEen. 2013-2015.	14
1.12. grafikoa: Lurralde historikoetara iritsitako etorkinen bilakaera eta proiektzioa. 1990-2030	14
1.13. grafikoa: Kanpoko emigrazio-indize sintetikoaren bilakaera EAEen, sexuaren eta jomugaren arabera. 1998-2015.....	15
1.14. grafikoa: Emigrazioari dagozkion patroiak, sexuaren eta jomugaren arabera, EAEen. 2013-15	17
2.1. grafikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren garapena eta proiektzioa. 1982-2031.	20
2.2. grafikoa: EAEko biztanleriaren hazkundearen osagaien garapena eta proiektzioa. 1991-2030.....	22
2.3. grafikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren piramideak. 2016 eta 2031.	23
2.4. grafikoa: Biztanleriaren garapena eta proiektzioa hezkuntza-zikloetan. 1982-2031.	25
2.5. grafikoa: Adineko biztanleen bilakaera eta proiektzioa, adin-segmentuen arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa, 1982-2031.....	27
2.6. grafikoa: Lurralde historikoetako biztanleriaren hazkundearen osagaien garapena eta proiektzioa. 2001-2030	29
2.7. grafikoa: Lurralde historikoetako biztanleriaren piramideak. 2016 eta 2031.....	30

1 Fenomeno demografikoen analisia eta proiekzioa

Heriotza-tasaren, ugalkortasunaren eta migrazioen gainean berriki enregistratutako joeren analisia izan ohi da proiekzio-ariketen muina. Proiekzio honetan, euskal biztanleriaren etorkizuneko testuinguru bakarra eraiki da, 2031. urtea jomuga bezala ipinita, fenomeno horietarako sinesgarrien jotzen den garapenetik abiatuta.

1.1 Heriotza-tasa

Heriotza-tasaren etorkizuneko mailen balioespenak garrantzia hartu du berriro ere biztanleriaren proiekzioetan, berriki izandako garapenaren eta egungo eta etorkizuneko egitura demografikoen gainean duen eraginaren ondorioz. Alde batetik, bizi-luzetasunean lortutako aurrerapenak izan dira bizi-itxaropenetako aurrerapen berrien oinarria, eta berriz planteatu dira biziraupenaren mugak. Bestetik, biztanleriaren egiturak zahartzearen ondorioz, pertsona gehiagok eskuratuko dituzte bizitza-luzeran izandako aurrerapen horiek abantailak. Ondorioz, fenomeno demografiko horren rola gero eta garrantzitsuagoa izango da, proiekzioetako baten helburua adineko pertsonen taldeko etorkizuneko kideen eta zahartze-mailen aurreikuspena baita, gizarte- eta asistentzia-politiketan duten inpaktuagatik eta osasungintzara edota pentsioetara bideratu beharreko baliabideengatik, beste hainbaten artean.

Azken hamarkadetan hobekuntza nabarmena izan da euskal biztanleriaren biziraupenean (1.1 taula). Hala, 1979-81 eta 2013-15. urteen artean, jaiotzako bizi-itxaropenak 9,4 urteko hazkundera izan du gizonetzkoetan eta 7,9 urtekoa emakumezkoetan. Beste modu batera esanda, urtero batez beste 0,27 urte luzatu dute dituzte bizitza-urteak gizonak, eta 0,23 emakumeek. Nolanahi ere, hobekuntzen erritmoa ez da uniforme izan: aurreko mendeko laurogeiko hamarkadaren erdi aldera egonkortze-etapa bat izan zen, are atzeraldi puntual batzuk ere gizonetzkoetan, heldu gazteenetan hiltzeko arriskuen portaera negatiboaren ondorioz. Galera horietan gerora izandako berroneratzea eta bizitza-zikloaren beste etapa batzuetan heriotza-tasak portaera ona izan duela gaineratuta, batez besteko bizitza-irabaziak bizkortu egin ziren joan den mendearen amaieran, batez ere gizonetzkoetan. Bestalde, 65 urterekin den bizi-itxaropenak, adin nagusienetan hiltzeko arriskuak sintetizatzen dituenak, azken hogeita hamabost urteetan % 33ko hazkunde jarraitua izan du gizonetan, eta % 27koa emakumeetan. Bizi-itxaropenaren bilakaerak aurrera egiteko joerari eutsi dio berriki, baina mende honetako azken bost urteetan hazkunderaren erritmoa motelagoa izan da; aldi berean, bizitza-urteen irabazi jarraituak adin aurreratuagoetan kontzentratu dira, batez ere emakumeen kasuan.


1.1. taula. Bizi-itxaropena jaiotzerakoan eta 65 urterekin, Euskal Autonomia Erkidegoan. 1980-2015.

	Jaiotzean			65 urterekin		
	Gizonak	Emakumeak	Aldea	Gizonak	Emakumeak	Aldea
1979	70,78	78,38	7,6	14,07	18,15	4,1
1984	72,27	79,93	7,7	14,42	18,80	4,4
1989	73,16	81,08	7,9	15,12	19,75	4,6
1994	74,00	82,38	8,4	15,79	20,61	4,8
1999	75,79	83,22	7,4	16,29	21,13	4,8
2004	77,18	84,35	7,2	17,12	21,91	4,8
2009	78,85	85,52	6,7	18,19	22,93	4,7
2014	80,22	86,26	6,0	18,95	23,56	4,6

Oharra: hiru urtean behingo heriotza-tasen taulak, erreferentzia-urteari dagokionez. Heriotza-tasen taulen bizi-itxaropena hiru urteko datuekin sortuta aurkeztu da, urteroko fluktuazioak ezabatzeko asmoarekin, hala nola 2015ean gertatuko bizi-itxaropenaren beherakada, urte hartan gertatu ziren heriotzen hazkunde esanguratsu baina puntualaren eraginez.

Euskal gizarteak trantsizio epidemiologikoko garaia bizi du, eta etapa horren ezaugarri nagusia heriotza-tasa adin aurreratuagoetara igarotzea da, arrazoi kroniko-degeneratiboen eta bizitzako urteen irabaziak pixkanaka adin nagusienetan kokatzearen ondorioz, heldutasunean eta nagusitasunean hiltzeko arriskuak murrizten doazen heinean (1.1. grafikoa). Emakumeak prozesu horretako estadio aurreratuago batean daude; izan ere, 2000 eta 2014 bitartean 70 urtetik aurrerako heriotza-tasa jaitsi izanak jaiotzako bizi-itxaropena 1,9 urte handitzea eragin zuen. Hau da, kopuru osoaren hiru laurden, eta ekarpenik handiena 80 eta 84 urte bitarteko taldean izan zen. Heriotza-tasak garrantzi txikiagoa izan zuen gizonetan: 1,7 urte handitu zuen, eta 75 eta 79 urte arteko taldean izan zuen eragin handiena.

1.1. grafikoa: Adinek bizi-itxaropena irabazteari edo galtzeari egindako ekarpena 1999 eta 2015 artean, sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa.




Oharra: hiru urtetik behingo taulen arabera egindako kalkulua, 2000. eta 2014. urteetan zentratuta.

Azaldu berri dugun hondoko joerari beste bi bilakaera gaineratu behar zaizkio, ulertu ahal izateko bizi-itxaropena gehiago handitu zutela gizonezkoek emakumezkoek baino; horren ondorioz, bi sexuen arteko bizitza-diferentzialak urte eta erdi gerturatu ziren bi sexuen artean. Lehenik eta behin, adin heldu eta gazteetan biziraupenaren hobekuntzak marjina hobeak izan zituen gizonezkoetan, emakumezkoenak baino heriotza-tasa handiagoetatik abiatuta, gainera. Hala 20 eta 35 urte bitartean hiltzeko arriskua jaitsi izanak 0,43 urte luzatu zuen gizonezkoen bizi-itxaropena; adierazle berak emakumeetan 0,18 urte luzatu zuen bizi-itxaropena. Bigarrenik, adin larrietan (50 eta 64 urte artean) heriotza-tasaren bilakaera desberdinak; izan ere, gizonetan beheranzko joerari eutsi zitzaion, eta kasik 0,7 urte luzatu zuten bizi-itxaropena. Emakumezkoen heriotza-tasek, berriz, egonkortzeko joera izan zuten adin batzuetan, eta, horren ondorioz, ez zen irabazirik izan adin horietan, eta are galdu ere egin zuten adin-talde batzuetan (55 eta 59 urte artekoetan, konparazio batera).

Heriotza-tasaren mailak eta profilak aztertuta, azken bosturtekoetan Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren heriotza-tasaren indarrean izandako aldaketak ikusiko ditugu (1.2. grafikoa). Hauek dira alderdi nagusiak:

1. Heriotza-tasaren zatiduren murrizketa-prozesua lehen adinetan –nahiz eta hiltzeko arriskuak egonkortzeko joera daukan bizitzako lehen urtean–, milako 2 inguruko mailara iritsi baita.
2. Adin heldu eta gazteetan heriotza-tasa hobetu izana, batez ere gizonezkoetan, nahiz eta nolabaiteko gainheriotza-tasa ageri den adin horietan, sexuen arteko diferentzial erlatibo garrantzitsuekin. 2013-15 arteko hirurtekoan, 20 eta 35 urte artean hiltzeko probabilitatea ‰ 6,0 izan zen gizonezkoetan, eta ‰ 2,4 emakumeetan.
3. Sexuen artean heriotza-tasen diferentzialak murriztu izana 55 urteen inguruan, heriotza-tasek gizonezkoetan hobera egin izanaren ondorioz eta emakumeetan hiltzeko arriskuak portaera apala izateak eraginda. Mendearen hasieran, gizonezkoetan 50 eta 60 urteen artean hiltzeko arriskua ‰ 160 handiagoa zen emakumeetan baino, eta gizonezkoen gainheriotza-tasa ‰ 90 jaitsi da 2013-15 hirurtekoan. Emakumeetan izandako bilakaeraren arrazoia zera da, adin-talde horietan arrisku-faktoreak eransten dituzten bizitza-estilodun kohorteak iritsi izana, hain zuzen ere, heriotza-kausa batzuk murrizteko joerari buelta eman diotenak (hala nola, biriketako minbizia, belaunaldi horietan tabakismo-joeragatik). Emakumeetan izandako belaunaldi-efektu horrek galderak sorrazten ditu epe ertainean nagusien heriotza-tasaren murrizketaren erritmoaren inguruan.
4. Adin nagusietan hiltzeko arriskuen beherakada, zirkulazio-aparatuaren gaixotasunengatik sorturiko heriotza-tasaren kontrolaren eta minbizien prebentzioan eta tratamenduan egindako aurrerapenen ondorioz. Mende hasieratik, 70 eta 80 urteen artean hiltzeko arriskua ‰ 32 murriztu da bi sexuetan; 80 eta 90 urteetan hiltzeko probabilitatea, berriz, ‰ 14 murriztu da gizonetan, eta ‰ 20 emakumeetan.
5. Adin aurreratuagoetan hiltzeko arriskuen beheranzko bideari ekitea; bide horren sendotasuna eta intentsitatearen mende egongo da, neurri handi batean, biztanleriaren batez besteko bizitzan izan litezkeen aurrerapen esanguratsuak. Azken hiru bosturtekoetan, 90 eta 100 urte bitartean hiltzeko arriskua ‰ 2 murriztu da gizonezkoetan, eta ‰ 4 emakumezkoetan.


1.2. grafikoa: Hiltzeko probabilitateak, sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2000 eta 2014



Oharra: hiru urtean behingo hilkortasun-tasen tauletatik eratorritako probabilitateak, erreferentzia-urtea ardatz gisa hartuta.


Sexuaren eta adinaren arabera azken 14 urteetan izandako heriotza-tasaren bilakaeraren joeren estrapolazioak erakusten duenez, jaiotzako bizi-itxaropena 2030ean 82,6 izango da gizonetan, eta 88,4 emakumeetan. Horrek esan nahi du 3,5 eta 2,6 urte handitu dela 2013-15 hirurtekoan behatutako balioen ondoan (1.3 grafikoa). Emakumeetan adin heldu eta nagusietan heriotza-tasa hobetzeko geldikin txikiagoa da, eta, gainera, inpaktu apalagoa du herritarrek bizitako urteen gaineen hiltzeko arriskuen murrizpenak esandako murrizketa hori gertatzen den adinean aurrera egin ahala; bi faktore horiek azaltzen dute irabazi absolutua emakumeetan txikiagoa izatea gizonetan baino, eta sexuen arteko batez besteko bizitza-diferentzialak murriztu egiten dira (6,1 izatetik 5,1 izatera). Adin aurreratuetako heriotza-tasekin loturik, aurreikuspenen arabera, 65 urtetik aurrerako bizi-itxaropenak % 14 handituko dira gizonetan eta % 8 emakumeetan, eta 21,6 eta 25,4 urte izatera iritsiko da, hurrenez hurren, 2030ean. Heriotza-tasaren adinaren araberrako bilakabidearen atzetik, hiru kasu daude: a) heldu-gazteen taldean hiltzeko arriskuen beherazko joera mantenduko da, hau da, ez dira adin horietako arrisku espezifikoak agertuko edo berriz sortuko; b) belaunaldi-ordezkapenak ez du eragin nabarmenik izango emakumezkoen heriotza-tasan eta, horri esker, nabarmen murriztuko dira heldutasunean eta adinekoen lehen urteetan hiltzeko arriskuak; eta, c) biztanleriaren bizi-luzeraren aurrerapenak mantendu eta sendotuko dira, eta adin aurreratuenetan biziraupenaren hobekuntza nabarmena gertatuko da.

1.3. grafikoa: Bizi-itxaropenaren garapena eta proiektzioa jaiotzerakoan eta 65 urteko adinean, sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 1981-2030.



Lurralde historikoei dagokienez, aurreikuspenen arabera, EAE osorako planteatutako bizi-itxaropenaren bilakaera jarraituko dute, pentsatuz gaur egun behatutako espazio-diferentzialek jarraitu egingo dutela epe ertainean (1.4 grafikoa). Kasu hori justifikatzeko, kontuan hartzen da EAEren eta lurralde historikoen arteko bizi-itxaropenei dagozkien aldeek azken hamarkadetan egonkor jarraitu dutela; bi sexuetan bizi-itxaropen handienak arabarrek izan dituzte, eta laburrenak, berriz, bizkaitarrek. Hala, 2030erako aurreikusten da jaiotzako bizi-itxaropena gizonetan 83,5 izatea Bizkaian eta 84,6 Araban, eta 88,6 eta 89,4 emakumeetan, lurralde beretan.

1.4. grafikoa: Bizi-itxaropenaren garapena eta proiektzioa jaiotzerakoan, Euskal Autonomia Erkidegoan eta lurralde historikoetan. 1989-2030




Oharra: behatutako balioak hiru urtean behingo taulei dagozkiz, erreferentzia-urtea ardatz gisa hartuta.

1.2 Ugalkortasuna

Azken hiru hamarkadetan eraldaketa handia gertatu da Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren emakumezkoen ugalketa-mailan eta -egutegian. Ugalkortasunaren beherakadak –gainbehera horrek berekin dakarren haur eta gazteen murrizketarekin– eragina izan du zenbait arlotan, esaterako, hezkuntzan, osasunean eta talde horri zuzendutako ondasunen ekoizpenean. Edonola ere, haurren eta gazteen beherakada proportzionalki apalagoa izan zen ugalkortasunaren beherakada baino, efektu konpentsatzaile baten eraginez: seme-alabak izateko pertsonak ugaritu izana, aldi berean 1960ko eta 1970eko ugalkortasun-tasa handiaren ondorioz. Aldiz, azken hamarkadetan izandako jaiotza-tasen beherakadak hurrengo urteetan ugaltzeko adinean izango den biztanleriaren murrizketa ekarriko du, eta horrek eragin negatiboa izango du haurren kopuruaren etorkizuneko garapenean, baita ugalkortasunaren errekupeazioan ere.

Azken hamarkadetan, beherakada oso handia gertatu da herritarren ugalkortasun-mailan, eta emakumeko seme-alaben batez besteko kopurua 1975ean 2,8 izatetik 1990eko hamarkadaren erdialdean 0,9 izatera igaro zen; ondoren, nolabaiteko leheneratzea etorri zen, 2015ean 1,36 seme-alabara iritsita (1.5 grafikoa eta 1.2 taula). Murrizketa hori azaltzeko, lehenik eta behin, hirugarren seme-alabak desagertu izana aipatu behar da (eta, oro har, familia ugariak); izan ere, 3. ordenako eta gehiagoko ugalkortasuna 0,14 izango litzateke emakumeko, hau da, 1975ean baino sei aldiz txikiagoa. Erreprodukzio-proiektuaren murrizketa horrekin batera lehen eta bigarren seme-alaben ugalkortasun-mailak nabarmen jaitsi dira (horiek dira guztizko ugalkortasunean pisu handiena dutenak), eta % 34ko eta % 42ko murrizketa izan dute, hurrenez hurren, 1975ean eta 2015ean. Jaiotako haurren ordenaren arabera ugalkortasun-tasaren murrizketa-erritmo desberdinaren ondorioz, lehen seme-alaben pisua handitu egin da, eta gaur egun % 53ko garrantzia du; 1960ko erdi aldera, berriz, % 40koa zen pisu hori.

1.5. grafikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko ugalkortasun-tasa sintetikoaren eta amatasunaren batez besteko adinaren bilakaera. 1975-2015



Ugalkortasunaren beste dimentsio garrantzitsu batek pertsonen eta familien bizitzaren zikloarekin dauka lotura; amatasunaren adinak, alegia. Azken urteetako bilakaera garrantzitsuena ugalkortasun-bizitzaren adinaren hasiera handitu izana da, hau da, lehendabiziko amatasuna, 6,5 urte handitu da eta 32 urtetik aurreraxeago dago gaur egun. Lehenbiziko amatasuna horren adin aurreratuan izateak esan nahi du emakume askok eta askok bigarren edo hirugarren seme-alaba 35 urterekin baino gehiagorekin izatea, haurdun geratzeko probabilitate biologikoak eta jaiotza bizidunak murrizten direnean, alegia. Gaur egun, EAEko emakumeek 34 urtetik aurrera izaten dituzte bigarren seme-alabak, eta hirugarren eta hurrengo umeak izateko batez besteko adina, berriz, antzeko mailan geratzen da. Azken bi adin horien kointzidentzia azaltzeko, hain zuzen, egutegiaren atzerapena hartu behar da kontuan; izan ere, gaur egun hirugarren umeak eta hortik aurrerakoak izaten dituzten emakumeak batez ere lehendabizikoa eta bigarrena gazteagotan izan dituztenak dira.


1.2. taula: Guztizko ugalkortasun-tasa sintetikoaren eta amatasunaren batez besteko adinaren bilakaera, ordenaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 1975-2015

	1975	1980	1985	1990	1995	2000	2005	2010	2015
UIS									
Seme-alaba 1	1,08	0,82	0,62	0,51	0,51	0,59	0,67	0,72	0,72
Seme-alaba 2	0,86	0,63	0,46	0,37	0,32	0,38	0,44	0,47	0,50
3+ seme-alaba	0,83	0,43	0,21	0,10	0,06	0,06	0,08	0,12	0,14
Guztira	2,78	1,86	1,29	0,98	0,90	1,03	1,18	1,31	1,36
ABBA									
Seme-alaba 1	25,7	25,8	26,9	28,6	30,4	31,5	31,7	31,8	32,2
Seme-alaba 2	28,7	29,0	29,7	31,5	32,9	34,0	34,6	34,4	34,6
3+ seme-alaba	33,0	33,1	33,8	34,2	35,0	35,3	35,5	34,6	34,5
Guztira	28,8	28,5	29,0	30,2	31,6	32,7	33,0	32,9	33,3

Azkeneko bosturtekoetan, ugalkortasun-mailak leheneratzen joan dira, 1995eko minimo historikoetatik abiatuta; urte hartan, emakumeko 0,9 seme-alaba izan ziren batez beste, eta 2015ean 1,36 izatera iritsi zen; hau da, bi hamarkadatan % 50eko hazkundea gertatu da. Gakoa zera da, joera hori, ugalketaren portaeren aldaketa iraunkorragoaren ondorioz, etorkizunean mantenduko ote den edo, adin gazteagoetan amatasun atzeratua gauzatzeari lotuta, egoeraren arabera fenomeno izango den jakitea. Galdera horri erantzuteko moduaren arabera, goranzko joera luzatuko lukeen etorkizuneko garapenari buruzko hipotesi bat edo joera hori motelduko lukeen beste hipotesi bat planteatuko genuke.

Nabarmentzeko alderdi bat zera da, Euskal Autonomia Erkidegoko ugalkortasunaren berreskurapena gainerako autonomia-erkidegoetan erregistratutakoa baino handiagoa izan dela (1.5 grafikoa). Hala, 1980ko hamarkadaren zati handi batean eta 1990koaren lehen erdialdean, EAEk zituen ugalkortasun-maila apalenak; gaur egun, berriz, ugalkortasun handiena duen bosgarren autonomia-erkidegoa da. Kokapen erlatiboa hobetze horren arrazoia atzeratutako ugalkortasuna maila handiagoan berreskuratu izana da, aurreko urteetan izandako maila apalagoen ondorioz. Beste arrazoi bat da goranzko joerari eutsi izana oraindik oraintsura arte, autonomia-erkidego gehienetan murriztu bazen ere, krisialdi ekonomikoaren eraginez.

1.6. grafikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko ugalkortasun-tasa sintetikoaren eta beste autonomia-erkidego batzuetakoaren arteko konparazioa. 1975-2015




Oharra: grafikoak ez ditu Ceuta eta Melillako datuak jasotzen. EAEko datuak, beltzez

Amaren adinaren arabera ugalkortasunaren garapenak bi epealdi handi identifikatzea ahalbidetzen du (1.3. taula). Lehen epealdian, 1975etik 1985era artekoan, ugalkortasunaren beherakada orokorra gertatu zen eta adin guztietan izan zuen eragina beherakada horrek. Beherakada oso handia izan zen tradizionalki ugalkorrenak izan diren adinetan, eta 25 eta 29 urteen artean ugalkortasunaren tasa erdira murriztu zen; 20 eta 24 urteen arteko tasan, berriz, % 67ko beherakada izan zen hamarkada bakarrean. Bigarren epealdian, laurogeiko hamarkadaren erdialdetik abiatuta, fenomeno nagusia 30 urtetik aurrerako ugalkortasuna handitzea izan da, lehen amatasunaren adinaren atzerapenaren ondorioz. Hala, bi etapa bereiz daitezke ugalkortasunaren maila orokorrari dagokionez. Lehen etapan, 30 urtetik gorako tasen errekupeazioa ez zen nahikoa izan adin gazteenetako tasetan gertaturiko beherakada konpentsatzeko, eta, horren ondorioz, emakumeen batez besteko seme-alaben kopuruak beherantz jarraitu zuen laurogeita hamarrek hamarkadaren erdialdera arte. Ugalkortasunaren egutegiak erabateko aldakuntza izan zuen; izan ere, 30 eta 34 urteen arteko taldeak hartu zuen kohorte ugalkorrenaren lekua, 25 eta 29 urteen artekoak hartu beharrean, eta 35 eta 39 urte arteko taldearen tasek 20 eta 24 urte arteko taldearen tasak gainditu zituzten. Bigarren etapan, 1995. urtetik aurrera, ugalkortasun-indize sintetikoaren errekupeazioa hasi zen, adin gazteetako ugalkortasun-tasek izandako beherakadaren ondorioz eta 30 urtetik aurrerako goranzko joera mantentzearen eraginez. Horrek guztiak azaltzen du 1995. urtetik 2015era izandako ugalkortasunaren kopuru osoak ehuneko 90eko hazkunde.

Eskema orokor hori aldatu egin da azken urteetan, 25 urtetik beherako emakumezkoen ugalkortasunak izandako gorakada apalaren ondorioz. Alabaina, haustura hori ez da portaera-aldaketa baten ondorioa, hau da, ugalketa-egutegia gertatzearen ondorio, baizik eta ugalkortasun-patroi gazteagoa daukaten emakumezko atzeritarrek iristearen ondorio. Immigrazio horren rola jaiotza-kopuru osoan ama atzeritarretatik jaiotakoek daukaten pisuaren garapenean egiazta daiteke. Proporzio hori nabarmen handitu da 30 urte baino ama gazteagoetatik jaiotakoaren artean: 2007tik 2013ra artean ama atzeritarretatik izandako jaiotzak gehiengo ziren EAEn bizi ziren 25 urtez

azpikoetan, eta oraindik ere guztizkoaren % 47 dira 2015ean, nahiz eta atzerriko immigrazioa murriztu den. Beste hitz batzuetan esanda, immigrazio horren eraginik gabe, adin gazteenetan izandako ugalkortasun-tasek beheranzko joeran jarraituko zuket, 1960ko erdialdetik aurrera gertatu den bezala.

1.7 grafikoa: Bost urteko ugalkortasun-tasak Euskal Autonomia Erkidegoan. 1975-2015




Nabarmendu beharreko bigarren alderdi bat zera da, 1995. eta 2015. urteen artean izandako ugalkortasunaren gorakadaren oinarria, funtsean, 1. ordenaren bilakaera dela; izan ere, emakumeek lehen seme-alaben batez bestekoa 0,52 izatetik 0,72 izatera igaro da, eta horrek ugalkortasun-indize sintetikoaren hazkunde osoaren % 44 osatzen du (1.3. taula). Joera horrek eta errekupeazioa 30 urtetik gorako adinetan bilduta egoteak ahalbidetzen du arestian planteaturiko galderari erantzuna ematea: ugalkortasun-indize sintetikoaren hazkundeak ugalkortasun-maila handiagorako joera-aldaketa iragartzen du edo egutegian ugalkortasunaren adinen aldaketa egokitzearen ondorio da? Lehendabiziko ordenak 1995. urtean maila oso baxutik abiatuta gora egiteak eta egutegiaren aldaketa handiek zera adieraziko lukete, ugalkortasuna adin gazteetan atzeratutako amatasuna berreskuratzeak kontrolatu duela, eta ez horrenbeste intentsitatearen aldakuntzak –hau da, emakumezkoek azkenean izango dituzten seme-alabak–.

1.3. taula: Ugalkortasun-tasak jaiotakoaren ordenaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 1995 eta 2015 (milakotan)

	Ordena guztiak		1. ordena		2. ordena		3. ordena eta geroagokoak	
	1995	2015	1995	2015	1995	2015	1995	2015
15-19	3	4	2	4	0	0	0	0
20-24	12	16	9	11	2	4	0	1
25-29	53	42	39	28	12	11	1	4
30-34	82	102	43	59	35	34	5	9
35-39	28	84	10	34	14	40	5	10
40-44	3	21	1	8	1	10	1	3
45-49	0	2	0	1	0	1	0	0
ISF	0,90	1,36	0,52	0,72	0,32	0,50	0,06	0,14

Lurralde historikoetako ugalkortasunaren ezaugarrien analisiari esker, hurrengo urteetan jarraituko duten edo leunduko diren joerak eta alderdiak identifika daitezke, behin-behinekoak edo behin betikoak (1.8. grafikoa). Aldaketen artetik nabarmentzekoa da Gipuzkoan izandakoa, EAEren testuinguruan zeukan posizio erlatiboa alderantzikatu baitu eta, azken hogeitaz urteetan, ugalkortasun handieneko lurraldea izatera igaro da. Aldiz, Arabako eta Bizkaiko garapenak antzekoak izan dira mailari eta joerari dagokienez. Edonola ere, azkeneko garaietan Araban bizi diren emakumeetan ugalkortasun-tasa handiagoa ageri da; neurri handi batean, ama atzerritarretatik jaiotakoen pisuagatik azalduko litzateke. Egutegia kontuan hartuta, Araban, 1980ko hamarkadatik, amatasunaren batez besteko adina beste bi lurraldeetan baino pixka bat txikiagoa izan da; atzerapen handiena, berriz, Bizkaian izan da. Alde horiek 25 urte baino lehenagoko ugalkortasun-tasen bitartez azal daitezke Araban, lurralde historiko horretan immigrazioak ugalkortasunean inpaktu erlatibo handiagoa izan baitu. 2014-15 biurtekoan, ugalkortasun-mailaren oszilazioa Bizkaian emakumeko 1,29 seme-alabakoa kopuruaren eta Arabako 1,47koaren artean ibili da, eta, aldiz, amatasunaren batez besteko adina Arabako 32,4 urteen eta Gipuzkoako 32,7ren artean..

1.8. grafikoa: Ugalkortasun-indize sintetikoaren eta amatasunaren batez besteko adinaren bilakaera. Euskadi eta lurralde historikoak. 1975-2015




Ugalkortasunaren ordenaren arabera joera eta amaren adina estrapolatzeak, uneotan, 2030erako emakumeko 1,53 seme-alabako ugalkortasun-tasa aurreikusten dute Euskal Autonomia Erkidego osorako (1.4 taula). Adinaren arabera, lehendabiziko seme-alabaren ugalkortasuna % 8 handitzea aurreikusten da proiektatutako aldian, bigarrenarena % 14 eta hirugarrenarena eta hortik aurrerakoena, berriz, % 34. Edonola ere, ugalkortasun osoari egindako ekarpenari dagokionez, ekarpenik handiena bigarren seme-alabak egingo du (guztizkoaren % 41). Ondoren, lehendabiziko seme-alabak (% 32), eta hirugarren seme-alabek eta hortik aurrerakoek, berriz, % 27 eragingo dute.

1.4. taula: EAEko eta lurralde historikoetako ugalkortasun-indize sintetikoaren bilakaera eta proiektzioa. 2000-2030.

	Álava/Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
2000	1,05	0,97	1,12	1,03
2005	1,14	1,14	1,27	1,18
2010	1,37	1,24	1,40	1,31
2015	1,46	1,28	1,44	1,36
2020	1,55	1,34	1,50	1,43
2025	1,62	1,40	1,55	1,48
2030	1,69	1,44	1,59	1,53

Ugalkortasunaren ibilbidea positiboa izango da adin-talde ia guztietan, eta hazkunde absolutu handienak 30 eta 34 urte arteko taldeetan izango dira; ondoren, 35 eta 39 artekoetan (1.9 grafikoa). Hurrengo urteetan amatasun-adinaren hasiera atzeratuko da eta adin gazteetan atzeratutako ugalkortasunaren errekupeazioa gertatuko da; horren ondorioz, 30 urtetik gora tasak handitzeko joerak jarraituko du, baina iraganean baino erritmo motelagoan. Orotara, ugalkortasun-indize sintetikoan 2015. eta 2030. urteen artean aurreikusitako errekupeazioaren % 71k 30 urtetik gorako ugalkortasunaren portaeran izango du oinarria eta, balioespenaren arabera, epealdiaren amaieran 30-34 urteen arteko tasa % 103 inguruan izango da, 35-39 urteen artekoa % 98 inguruan, eta 40 eta 44 urteen artekoa, berriz, % 29koa. Joera horrekin batera, 20 eta 24 urte arteko emakumeen ugalkortasun-tasak ere gora egingo du apurtxo bat, eta tasa % 16tik % 21era igoko da; 25 eta 29 urte artekoetan ere bai, % 16tik % 21era igaroko baita 2015 eta 2030 artean. Bilakaera horien guztien ondorioz, amatasunaren batez besteko adina handitzen joango da, nahiz eta erritmo nabarmen motelagoan egingo duen, harik eta proiektzioaren horizontean 33 urtera iritsi arte.

1.9. grafikoa: Ugalkortasun-tasen garapena eta proiektzioa, amaren bosturteko adin-taldearen arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2000-2030 (milakotan)



Lurraldeen kasuan, ugalkortasun guztizkoaren zein ordenaren arabera ugalkortasunaren bilakaera EAerako aurreikusitakoaren antzekoa izango da, eta ez da konbergentzia handirik aurreikusten ugalkortasun-mailetan. Hala, 2030erako aurreikusten da emakumeko seme-alaben batez besteko kopurua minimotik hurbil ibiliko dela Bizkaian, emakumeko 1,44 seme-alabarekin, eta Araban maximoetan, 1,69 seme-alabarekin. Urte horretan, Arabako ugalkortasun-tasa Bizkaikoa baino % 16 handiagoa izango litzateke; gaur egun, aldea % 14koa da.

1.3 Migrazioak

Migrazioen intentsitatea eta ikurra osagai funtsezko izan dira Euskal Autonomia Erkidegoko dinamika demografikoan. Hala, 1960ko urteetan eta 1970eko hamarkadako lehen zatian Estatuko gainerako tokietatik iritsitako immigrazio-korronteak biztanleria-hazkundearen motor izan ziren, eta, aldi berean, biztanleriaren piramidea gaztetu zuten, adin helduetako pertsonak ekarrita eta jaiotza-tasa zeharka sustatuta. Gerora izandako migrazio-fluxuen moteltzearen eta XX. mendearen azken laurdenean fluxu horiek negatibo izatearen ondorioz, EAE emigrazio-eremu bihurtu zuten. Mende-aldaketarekin, truke-eredu bat ezarri zen, Estatuko gainerako lurraldeetatik zein atzeritik etorritako immigrazio-fluxuek izandako gero eta garrantzi handiagoaren eraginez, eta migrazio-saldo positiboetara bueltatu zen EAE, harik eta 2011n 8.000 lagun pasatzoko maximora iritsi arte. Azken urteetan, joerak desberdinak izan dira: hasieran, migrazio-saldo negatiboko biurteko bat izan zen, etorkinen fluxuak behera egin izanaren ondorioz eta 2012 eta 2013an emigrazioa ugaritu izanak eraginda, eta, ondoren, 2014 eta 2015ean saldo positiboak berreskuratu ziren, sarrerak apurtxo bat ugaritu izanagatik eta irteerak murriztearen ondorioz. Aldi berean, egoitza-mugigarritasuna handitzeak eta atzerriko biztanleria handiagoa izateak barneko migrazio-trukea intentsifikatzea ekarri zuten.

1.3.1 Immigrazio-fluxuen joera eta proiektzioa


Azken urteetan gertaturiko aldaketa demografiko garrantzitsuen, inolako zalantzarik gabe, Euskal Autonomia Erkidegoak migrazio-fluxu esanguratsuak berreskuratu izana da. Hala, 2000 eta 2007 artean, sarreren kopurua bikoiztu baino gehiago egin zen: 22.000 izatetik 46.000 izatera igaro baitzen, atzerriko immigrazioaren puntu gorenarekin batera. Krisialdi ekonomikoaren ondorioz, immigrazioa % 27 murriztu zen 2007 eta 2013 artean, atzerriko sarreren bat-bateko murrizketaren ondorioz eta Estatuko gainerako tokietatik immigrazioak artean zuen goranzko joerak buelta eman ostean. Joera horien ondorio gisa, immigrazio-fluxuen jatorriak aldatu egin ziren; izan ere, 2007an immigranteen % 55 atzeritarrak ziren, eta 2013an, berriz, % 37. Berrikiago, 2014-2015 biurtekoan EAEa etorrera gehiago izan ziren, atzeritik heldutako kopuruak berreskuratu izanaren ondorioz; guztizkoaren % 40 izatera iritsi ziren 2015ean.

Euskal Autonomia Erkidegoak etorkizunean izango duen immigrazio-fluxuaren estimazioan, Estatuko gainerako lurraldeetatik eta atzeritik etorriak bereizi dira (1.10 grafikoa):

- Gainerako autonomia-erkidegoetatik etorritako immigrazioa. Fluxua bi faktoreen arabera da: alde batetik, zein izango den Estatuko gainerako lurraldeetatik EAEa etortzeko joera, eta, bestetik, hurrengo urteetan jatorri horretako populazioaren neurrian eta egituran zer aldaketa izango diren. Lehendabiziko alderdiari dagokionez, ikusi da EAEa emigratzeko intentsitateak egonkor jarraitu duela azken urteetan; izan ere, EAerako emigrazio-indize sintetikoa ‰ 42koa izan zen 2006-07 biurtekoan gizonetan, eta ‰ 40koa emakumeetan. Balio horiek ‰ 44 eta ‰ 41koak dira 2013-15 biurtekorako. Bigarren faktoreari dagokionez, 2016-2066 aldirako Biztanleriaren Proiektzioak lanean, Estatistikako Institutu Nazionalak Espainiako biztanleak murriztea aurreikusten du adin helduenetan, horiek baitira emigratzeko joera handiagoa

dutenak. Hala, % 15 gutxituko dira 20 eta 39 urte arteko biztanleak 2016 eta 2031 artean. Horrez gain, Espainiako biztanleriaren adinen arabera piramidearen eraldaketak berak ere egokituko du EAera etortzen diren emigranteen egitura demografikoa, adin helduan eta zaharrean etorriko diren biztanleen sarrera-fluxuak ugaritu egingo baitira (eta adin-talde horiek izango baitute hazkunde handiena epe ertain eta luzean).

1.10. grafikoa: EAera Espainiako gainerako lurraldeetatik etorritako immigranteak, adin sinpleko, 2016 eta 2030 artean.




Formulatutako hipotesiaren arabera, Estatuko gainerako lurraldeetatik sexuaren eta adinaren arabera emigratio-tasak 2013-2015 biurtekoan izandakoaren bidetik konstante jarraituko du EAEn, eta INEk egindako proiektzioetakoa aplikatuko da; hala lortuko da sexuaren eta adinaren arabera EAEn izandako immigrazioa-fluxua 2016-2030 aldian¹. Immigranteen kopuru osoak beherezko joera ageri du, eta 2016an 21.400 lagun izatetik 2030ean 19.390 izatera igaroko da; hala, denboraldi horretan guztian 302.000 pertsonako ekarpena aurreikusten da. Zenbateko hori aurreko hamabost urteetan erregistratutakoa baino apurtxo bat txikiagoa da, 2001etik 2015era 310.000 etorkin izan baitira EAEn. Espainiako biztanleriaren egitura-aldaketak immigrante helduak gutxitzea eragingo du, baita adin helduetan etortzen diren biztanleen fluxua handitzea ere (1.10 grafikoa).

- Atzerriko immigrazioa. Atzerriko sarrera-fluxuak 2012an hasitako hobekuntzak hurrengo urteetan jarraitu egingo du, harik eta 2030ean 17.670 immigranterara iritsi arte; horrek esan nahi du proiektatutako aldi osorako 245.000 pertsona inguru etorriko direla atzeritik. Immigranteen egiturak, sexuaren eta adinaren arabera, migrazio-egutegi oso kontzentratua ageri du adin heldu eta gazteetan, eta apenas den 50 urtetik gorako immigranterik; hala, denboran egonkortasun handia du, eta, arrazoi hori dela medio, sarreraren fluxu osoa banatu egin da 2013-15 hirurtekoan behatutako migrazio-patroien arabera (1.11 grafikoa).

¹ Gainerako autonomia-erkidegoetatik EAera etorritako immigrazio-fluxuak argitaratu ditu INEk, sexuaren eta adinaren arabera, 2016-2031 aldiko urte bakoitzeko. Edonola ere, informazio hori ez erabiltzeko hautua egin dugu; izan ere, INEren migrazio-fluxuen proiektzioa Migrazioen Estatistikaren informazioa baliatuta egiten da, eta migrazio-trukeen bolumen apalagoa eskaintzen du Bizileku Aldakuntzen Estatistikatik eratorritakoak baino. Horrenbestez, INEk proiektatutako immigrazio-fluxuak hartzeak haustura ekarriko luke proiektatutako seriearen eta EUSTATEk zabalduetako Estatuko gainerako lurraldeetako migrazio-mugimenduek erregistratutakoaren artean.


1.11. grafikoa: Atzerriko immigrazioari dagozkion patroiak EAEn. 2013-2015.



Oharra: patroiak apalduta.

- Euskal Autonomia Erkidego osorako proiektatutako bi immigrazio-fluxuak lurralde historikoetara esleitu dira, 2013-15 aldiko datuetan oinarrituta eta sexuaren eta adin-taldearen arabera banaketa-matrizeak aintzat hartuta. Lurralde batean izandako sarrera guztiak, horrenbestez, EAEnko immigrazio mota bakoitzerako formulatutako hipotesien arabera dira, baita fluxu horien erakarpen-gaitasunaren arabera ere. Bi elementuak konbinatzean, joera parekoa da lurralde guztietan, baina erritmoari dagokionez desberdintasun apalak ageri dira immigrazio motetarako egindako aurreikuspenen arabera (1.12 grafikoa). 2015-30 epealdi osorako, orotara, Araban 96.000 etorkin izango direla dago aurreikusita eta % 41 atzerritarrak izango dira; Bizkaian 262.000 izango dira eta sarreraren % 47 atzerrikoak izango dira; hirugarrenik, Gipuzkoan 189.0000 izango dira eta % 52 izango dira Estatutik kanpokoak.

1.12. grafikoa: Lurralde historikoetara iritsitako etorkinen bilakaera eta proiektzioa. 1990-2030




1.3.2 Emigrazioa Estatuko gainerako lurraldeetara eta atzerrira

Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora izandako emigrazioak irteeren hazkunde jarraitua ageri du; hala, mende-aldaketako urteetan 17.000 lagun joan ziren kanpora, eta 2012-13 biurtekoan, berriz, 35.000 pasatxo. Urte horietan, emigrante gehienek atzerria izan zuten xede; hamarkada bat lehenago, ordea, atzerrira egindako irteerak guztien % 14 ziren. Edonola ere, azken urteetan emigrazioaren fluxua murrizten ari da, eta urtean batez beste 32.000 emigrante izan dira 2014-15 biurtekoan, atzerrirako irteerak murriztu izanaren ondorioz. Irteeren bilakaera horretan, bi faktorek jarduten dute: alde batetik, herritarrek EAetik kanpora emigratzeko joera handiagoa edo txikiagoa, eta, bestetik, biztanleriaren bolumenean eta egituran izandako aldaketak adinen arabera.

Kanpoko emigrazioaren indize sintetikoak (ISMEExt), emigraziorako EAEko biztanleen joera sintetizatzen duen indizeak, hazteko joera jarraitua ageri du mende hasieratik (1.13 grafikoa). Hazkunde hori atzerrira abiatzeko joera handiagoak eraginda dago, eta, oinarrian, aurreko urteetan EAEra iritsi ziren atzerriko biztanleak dituzte protagonista. Edonola ere, fenomenoaren kaptazio estatistikoan bertan izandako hobekuntzak ere ez dira kanpo utzi behar. Beste autonomia-erkidego batzuetara emigratzeko joerak, berriz, bilakaera egonkorragoa izan du, nahiz eta krisialdi ekonomikoaren osteko urteetan intentsitatea apur bat moteldu egin den. Urtero, emigratzeko joera handiagoa da gizonetan emakumeetan baino, eta diferentzial horiek handiagoak dira atzerrira izandako emigrazioak kontuan hartzen baditugu.

1.13. grafikoa: Kanpoko emigrazio-indize sintetikoaren bilakaera EAEn, sexuaren eta jomugaren arabera. 1998-2015



Oharra: erreferentziazko urtea ardatz gisa hartutako hiru urteko batez besteko mugigarria.

Emigrazio-intentsitatearen bilakaerak paralelismo handiak ageri ditu lurraldeetan, EAE osorako behatutakoa oinarri hartzen badugu, edonola ere, maila-alde esanguratsuak ere badira (1.5 taula). EAetik kanpora emigratzeko joera handiena Araban ageri da, batez ere gizonezkoen artean; txikiena, berriz, Gipuzkoan. Bizkaia dago erdibidean, gizonetan Gipuzkoatik gertuago eta emakumeetan, aldiz, Arabako datuetatik hurbilago. Nabarmendu beharreko alderdi bat zera da, berrikiago konbergentzia-prozesu apal bat gertatu dela, batez ere emakumeetan. Hala, 2010-12 hirurtekoan, arabarren

migratzeko joera gipuzkoarrena baino % 55 handiagoa zen gizonetan eta % 40 handiagoa emakumeetan; 2013-15 aldian, berriz, diferentzial horiek % 20ra eta % 14ra murriztu ziren, hurrenez hurren. Dena dela, erritmo- eta maila-aldaketak aldaketa, lurralde guztiek badute ezaugarri komun bat: azken urteetan emigrazio osoaren indize sintetikoak egonkorak direla.


1.5. taula: Emigrazioaren indize sintetikoaren bilakaera Estatuko gainerako lurraldeetara, sexuaren arabera, EAEtik eta lurralde historikoetatik. 2007-2015. (egoiliarak, milakotan)

		Gainerako aldeak			atzerria			Guztira		
		2007-09	2010-12	2013-15	2007-09	2010-12	2013-15	2007-09	2010-12	2013-15
Álava/Araba	Gizonak	871	906	864	473	822	787	1.344	1.728	1.651
	Emakumeak	831	796	775	282	568	547	1.113	1.364	1.321
Bizkaia	Gizonak	823	769	740	419	666	662	1.242	1.435	1.402
	Emakumeak	784	715	705	328	503	543	1.112	1.218	1.248
Gipuzkoa	Gizonak	699	625	706	420	489	664	1.119	1.115	1.371
	Emakumeak	645	598	630	320	382	529	965	980	1.159
EAE	Gizonak	789	743	748	427	654	681	1.217	1.397	1.429
	Emakumeak	746	689	691	318	474	537	1.064	1.163	1.227

Jomugaren araberrako hipotesi desberdinak egiteak dituen zailtasunak ikusirik, batez ere atzerrira izandako irteerei buruz, kanporako emigrazioa osorik kontuan hartzea erabaki dugu. Hipotesiaren arabera, proiektzio-denboraldi osoan egonkor jarraituko du 2010-12 hiru urtekoan ikusitako migrazio-intentsitateak. Kasu hori EAE osoan aplikatu da, baita lurralde historiko guztietan ere; horren arrazoia zera da, kanpo-emigrazioaren indize sintetikoaren adierazleak egonkor jarraitzen duela esparru guztietan azken urteetan.

Kanpo-emigrazioaren patroiak profil desberdinak ageri ditu adinaren eta jomugaren arabera (1.14 grafikoa). Estatuko gainerako lurraldeetara izandako emigrazioaren egitura demografikoan, fluxurik handiena adin heldu eta nagusietan ageri da, eta laneko mugikortasunarekin eta familia osatzarekin lotuta legoke; era berean, bada «herrestan eramandako» migrazio bat ere, haur-emigrazioaren pisuak erakusten duen moduan. Horrez gain, 65 urteen inguruan beste moda bat ere ageri da, itzulerako migrazio bat adierazten duena, baita adin aurreratuenetan ere, autonomia pertsonalaren galerarekin eta alarguntasunarekin loturik. Bi modetan, emakumezkoen patroia apur bat gazteagoa da gizonazkoena baino, 2-3 urte inguru gazteagoa; horrek erakusten du sexuen artean adin-desberdintasunak direla bikotea eta familia osatzeko garaian. Bestalde, atzerrira izandako emigrazioa eta gazte eta helduek izandako protagonismoa handiagoa da; izan ere, 15 eta 34 urteen artean biltzen da emigratzeko joeraren erdia. Halaber, familia-osagaiak garrantzi txikia du fluxu horretan, eta adin aurreratuetan apenas den tankera horretako mugimendurik. Lurraldeak banaka hartuta, emigrazioaren adinaren araberrako patroiak EAE osorako profilaren antzekoak dira, baina alde batzuk ageri dira. Hala, helduen eta gazteen emigrazioak pisu handiagoa du bi sexuetan Gipuzkoan, edota erretiroaren inguruko adinetan pisu apalagoa du gizonetan Araban.

1.14. grafikoa: Emigrazioari dagozkion patroiak, sexuaren eta jomugaren arabera, EAEn. 2013-15



Oharra: patroiak apalduta.

Laburbilduz, emigrazio-tasek konstante jarraitzen dute proiektzio-aldi osoan, dela Euskal Autonomia Erkidego osoa aintzat hartuta, dela lurralde historikoetan, 2013-15 hirurtekoan behatutako batez besteko balioen alboan. Edonola ere, termino absolutuetan, atzerrira egindako irteeren fluxua progresiboki murrizten doa, biztanleriaren piramidea aldatzen doan heinean, eta murriztu egiten dira migrabilitate handiagoa duten adinetako pertsonak, hau da, adin heldu eta gaztekoak. 2016 eta 2030 artean, EAEtik kanpora irtendako emigranteen kopurua % 7 murriztuko da, lurraldeen artean alde esanguratsuekin; hala, Bizkaian % 10 izango da beharakada, eta Gipuzkoan, berriz, % 2koa. Araba egongo da erdibidean, emigrazio-fluxua % 6 murriztuta. Denbora-tarte osorako, aurreikuspenen arabera 459.000 irteera izango dira EAEtik; horietatik % 18 Araban bizi direnak, % 51 Bizkaian eta % 31 Gipuzkoan.

1.3.3 Lurralde historikoen arteko barne-mugimenduak

Mende honetan lurraldeen arteko migrazio-trukeak modu jarraituan handitu dira, eta 2000-02 biurtekoan urteko batez bestekoa 4.000 pertsona izatetik 2014-15 artean urteko ia 6.000 izatera igaro zen. Hazkunde horren zati bat biztanle atzerritarren presentzia handiagoarekin dago lotuta; izan ere, euren egitura sozio-demografikoa dela eta, bizileku-mugimendu handiagoa izaten dute. Dena dela, goranzko joera izangatik ere, barne-fluxuen bolumen osoa aski apala da, eta lurraldeen gaineko bilakaera demografikoaren gaineko inpaktua, berriz, oso esanguratsua ez. Izan ere, barne-migrazioaren saldo garbiek zenbateko apalak dituzte. Hala, 2013-15 hirurteko osorako, 229 pertsona mugitu dira Arabara eta 449 Gipuzkoara; ondorioz, Bizkaiak 678 biztanle galdu ditu.


Lurralde historiko batetik bestera bizilekua aldatzeko joera handiago horren eraginez, barneko migrazioaren indize sintetikoa (ISMint) ia % 60 handitu da bi sexuetan hiru esparruetan mende hasieratik hona (1.6 taula). Araban bizi direnak dute barne-migrazioaren bat egiteko joera handiena, EAE osoa aintzat hartuta nabarmentzen denaren bikoitza baino gehiago; beste bi lurralde historikoetan joera hori txikiagoa da argi eta garbi. Horrez gain, lurralde-patroi horrek ez du alterazio esanguratsurik izan barne-mugikortasuna handitu izanagatik, eta migrazio-diferentzialek konstante samar jarraitu dute. Aurreikuspenen arabera, joera horri eutsi egingo zaio migrazio-fluxuaren % 10 inguruko handitzearekin, eta, ondoren, egonkortu egingo da epe ertainean.

1.6. taula: Barne-migrazioko indize sintetikoaren bilakaera sexuaren arabera lurralde historikoetan. 2001-2015.

		2001-03	2004-06	2007-09	2010-12	2013-15
Álava/Araba	Gizonak	319	332	331	368	430
	Emakumeak	297	301	325	357	390
Bizkaia	Gizonak	129	138	139	169	186
	Emakumeak	122	139	141	156	187
Gipuzkoa	Gizonak	178	163	166	180	215
	Emakumeak	158	161	173	175	199

Barne-migrazioaren egitura demografikoa mugikortasunaren patroia orokorrera egokitzen da bizitzaren zikloaren etapetan. Batez ere, enpleguaren bilaketarekin, etxebizitza erostearekin eta familia osatzearekin daude lotuta mugimendu horiek; hori horrela izanik, barne-mugimenduen 10etik 4 inguru 20 eta 34 urteen artean gertatzen dira, eta intentsitate handiena –eta gazteena– emakumeetan du. Emigrazio-maila handiena 30 urte inguruko gizonetakoetan eta bi urte gazteagoko emakumeetakoetan erregistratzen da, emantzipatzeko adinaren atzerakadaren ondorioz eta bizikidetzari ekiteko adinean dauden sexuaren araberrako diferentzialen eraginez. Migrazio horien zati bat seme-alaba txikiak dituzten familiei dagokie, eta 10 urtetik beherakoak barne-migratzaileen % 11 dira. Lurraldeak aztertuta, berezitasun batzuk ageri dira barne-migrazioaren patroietan, hala nola adin heldu eta gazteko gipuzkoarren barne-emigrazioaren pisu erlatiboa (1.15 grafikoa). Patroi horiek 2010-2012 hirurtekoarekin alderatzen baditugu, antzekotasun handia ageri da profilean, eta denboran egonkortasuna islatzen dute; hori dela eta, konstante jarraitzen dute proiektatutako denbora-tartean.

1.15. grafikoa: Lurralde bakoitzeko barne-migrazioaren patroiak. 2013-2015



Oharra: patroiak apalduta.

Lurraldeen arteko migrazio-trukeen espazio-ereduak konstante samar jarraitu du azken urteetan; izan ere, Arabatik eta Gipuzkoatik abiatutako barne-migratzaileen bi heren inguruk Bizkaia dute jomuga; Bizkaitik abiatutakoak, berriz, berdin banatzen dira beste bi lurraldeen artean. Edonola ere, adin-talde handien arabera egindako azterketak erakutsi du jomugen preferentziak aldatu egiten direla segun eta migrazioa bizitza-zikloaren zer etapatan egiten den. Adibide modura, 2013 eta 2015 artean, bizilekua beste lurralde historiko batera aldatu zuten 20 eta 39 arteko gipuzkoarren % 70ek Bizkaira jo zuten, eta 65 urte eta hortik gorakoetan % 62 murriztu zen fluxu hori.


2 Euskal autonomia erkidegokoko eta lurralde historikoetako biztanleria 2016-2031

Mende-aldaketak haustura ekarri zuen euskal populazioaren bilakaeran, eta aurreko bi hamarkadetako joerari buelta eman zitzaion eta hazkunde demografikoari ekin; hala, 2,18 milioi biztanleko maximoa lortu zen 2012an, batez ere atzeritik etorritako immigrazioaren eraginez. Azkeneko urteetan, atzeritik izandako sarreraren fluxuak erori izanak murrizketa apal bat ekarri du, eta ondoren populazioa egonkortzea; dena dela, aurreikuspenen arabera, hurrengo hiru bosturtekoetan esandako joera aldatu egingo da, EAEko biztanleria modu oso apalean handituko da, eta epe ertainean 2012ko datua gainditu egingo du. Aldi berean, biztanleriaren piramidea aldatzeko prozesuak martxan jarraituko du, bereziki adin nagusiko herritarren artean, bizitza-urteak luzatzearen eta belaunaldi jendetsuenak adin horretara gerturatzearen ondorioz. Joera demografiko horiek lurralde guztietan gertatuko dira, nahiz eta berezitasun batzuk ere izango diren prozesu horien erritmo eta intentsitateekin loturik.

2.1 Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren garapena eta proiektzioa

Epe labur eta ertainean, agertoki demografikoak egonkortasun-testuingurua planteatzen du Euskal Autonomia Erkidegoan bizi direnen kopuruan, nahiz eta epe ertainean handitzeko joera apal bat izango duen, azken urteetan erregistratutako beheranzko bidea amaitzen duena (2.1 grafikoa). 2031. urtearen hasierarako, aurreikuspenen arabera 2,186 milioi biztanle izango dira; horrek esan nahi du 14.000 biztanle pasatxo gehiago izango direla 2016an erregistratutako datuen aldean.

2.1. grafikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren garapena eta proiektzioa. 1982-2031.



Oharra: biztanleria urtarilaren 1ean.

Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen bilakaeran, hazkunde naturalak eragindako biztanle-galerak eta migrazioek eragindako ekarpen garbiak konbinatzen dira (2.1 taula eta 2.2 grafikoa). Hazkunde naturalak ageri duen joerak saldo gero eta negatiboagoak ditu, heriotzak ugaritu eta jaiotzak urritu izanak eraginda. Bizitza-luzeran izandako aurrerapenengatik ere, adin aurreratuagoetan biztanle gero eta gehiago izateak heriotza kopurua % 10 handituko du denbora-tarte osoan, eta 22.500 lagun inguru hilko dira proiektatutako aldiaren azken urteetan.


2.1. taula: Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren eta fenomeno demografikoen bilakaera eta proiektzioa. 2010-2031

	Biztanleria Urtamalak 1	Jaiotzak	Heriotzak	Hazkunde naturala	Etorkinak	Emigratzaileak	Migrazio Saldoa	Biztanleria Abenduak 31
2010	2.169.038	21.159	19.357	1.802	38.591	33.425	5.166	2.174.033
2011	2.174.033	21.180	19.832	1.348	41.011	32.819	8.192	2.181.590
2012	2.181.590	20.533	20.281	252	34.362	34.589	-227	2.178.949
2013	2.178.949	19.118	19.692	-574	33.987	35.943	-1.956	2.172.877
2014	2.172.877	19.378	20.157	-779	35.491	31.889	3.602	2.173.210
2015	2.173.210	18.851	21.509	-2.658	35.917	32.555	3.362	2.171.886
2016	2.171.886	18.779	20.506	-1.727	36.100	32.171	3.928	2.174.087
2017	2.174.087	18.317	20.731	-2.414	36.145	31.803	4.342	2.176.015
2018	2.176.015	17.867	20.953	-3.086	36.187	31.467	4.720	2.177.649
2019	2.177.649	17.446	21.150	-3.705	36.228	31.165	5.063	2.179.008
2020	2.179.008	17.065	21.357	-4.292	36.271	30.898	5.374	2.180.089
2021	2.180.089	16.737	21.544	-4.807	36.319	30.665	5.654	2.180.936
2022	2.180.936	16.468	21.699	-5.231	36.372	30.467	5.906	2.181.610
2023	2.181.610	16.258	21.849	-5.591	36.433	30.303	6.130	2.182.150
2024	2.182.150	16.108	21.979	-5.871	36.502	30.172	6.331	2.182.610
2025	2.182.610	16.021	22.108	-6.087	36.580	30.071	6.509	2.183.032
2026	2.183.032	15.994	22.214	-6.221	36.666	30.000	6.666	2.183.477
2027	2.183.477	16.022	22.324	-6.303	36.759	29.955	6.804	2.183.979
2028	2.183.979	16.103	22.435	-6.332	36.858	29.932	6.926	2.184.573
2029	2.184.573	16.233	22.530	-6.296	36.960	29.927	7.033	2.185.310
2030	2.185.310	16.405	22.649	-6.244	37.064	29.936	7.129	2.186.194

Jaiotzei dagokienez, 2025-27 hirurtekoan 16.000 pertsona inguruko minimoetarantz beheranzko joera jarraitu bat espero da, eta hortik aurrerako urteetan apur bat gora egitea. Faktore erabakigarria ugaltzeko adinean diren emakumeen beherakada handia izango da, 25 eta 39 urte arteko emakumeetan % 20 jaitsierarekin (adin horietan biltzen da ugalkortasunaren % 85 inguru); hau da, 2016an 201.000 emakume izatetik, 2031n 161.000 emakume izatera. Ugalkortasunean gorakada bat aurreikusten bada ere –2030ean emakumeko 1,53 seme-alaba izatera iritsi arte–, ez da nahikoa izango ama potentzialen kopurua konpentsatzeko; hala, jaiotzak % 13 murriztuko dira, harik eta joan den mendeko azken urteetan erregistratutako kopuru antzekoak lortu arte, urte haietan ugalkortasuna % 36 txikiagoa baitzen 2030erako aurreikusitakoa baino. Adin ugalkorretan jende gutxiago belatzen izateak denboran jarraitu egingo du; beraz, ez da oso aurreikusgarria jaiotza-tasa urtean 20.000 pertsonatik gorakoa izatea epe luzean. Jaiotzen eta heriotzen ibilbide horiek hazkunde natural negatiboa eragiten dute, eta 2013an hasitako joera areagotu egingo da²; hori dela eta, 2016 eta 2030 artean 74.000 pertsona baino gehixeago galtzea aurreikusten da, eta 2025etik aurrera urtean 6.000 lagun gutxiago izatea.

² 2015eko hazkunde naturalaren beherakada handia (2.658 pertsona gutxiago) heriotzen kopuruak gora egin izanaren ondorioz gertatu zen. Kopuru hori ingurumen- eta/edo klimatologia-faktore espezifikoekin lotuta legoke; horrek azaltzen du lehen urteetarako proiektatutako hazkunde naturala ez izatea horren negatiboa eta aurreko urteetan erregistratutako balioen tankera hartzea.

2.2. grafikoa: EAEko biztanleriaren hazkundearen osagaien garapena eta proiektzioa. 1991-2030.




Migrazioei dagokienez, migrazio-saldo positiboa aurreikusten da Euskal Autonomia Erkidegoan atzerriarekin, 85.000 pertsona ingurukoa 2016-2030 aldi osorako. Horri esker, hazkunde naturalak eragindako galerak konpentsatu ahal izango dira. Datuak alderatuta, saldo horren neurria % 20 apalagoa da aurreko hamabost urteetan erregistratutakoa baino (2001 eta 2015 artean, alegia); garai hartan, migrazioek 107.000 pertsona ekarri zituzten, 2007-08 biurtekoan izandako maximoetatik oso urrun, inondik ere. Proiektatutako denbora-tartean zehar, migrazio-saldoak hazkunde jarraitua izango du, eta, 2006an 4.000 pertsona izatetik, azken urteetan 7.000 izatera igaroko da. Bilakaera hori kontrajarritako bi joeraren emaitza izango da: alde batetik, emigranteen kopurua progresiboki murriztu egingo da, adin helduetako biztanleen presentzia txikiagoak eraginda (horiek baitira migrazio-mugimendu handiagoak izan ditzaketen urtea), eta, bestetik, immigranteen kopurua handitu egingo da, atzeritik etorritako sarrera-fluxuak apur bat handitzea aurreikusita dagoen aldetik.

2.2 Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren egitura-aldaketak adinen arabera.

EAEko biztanleria osoaren nolabaiteko egonkortasunak aldaketa handiak ekarriko ditu biztanleriaren adin-egiturari, 2016ko eta 2031ko piramideen alderaketak erakusten duen moduan (2.3 grafikoa). Aldaketa horiek bi arrazoi dituzte: alde batetik, biztanleen egiturek izan ohi duten inertzia handia, diferentzial numeriko handiko taldeen biztanle-piramidearen profila igarotzearekin, eta, bestetik, aurreikusitako fenomeno demografikoen bilakaera eta adin-egiturekin duen harremana. Adin helduetan diren belaunaldi jendetsuenak adin heldu eta nagusietara joango dira, eta haien tokian jende gutxiagoko taldeak izango dira. Migrazioek biztanleak ekarriagatik ere, belaunaldien ordezkapen horrek eragingo du 2016 eta 2031 artean 35 eta 49 urte arteko pertsonak % 32 murriztea, eta 50 eta 64 urte artekoak, berriz, % 10 handitzea. Biztanleria-piramidearen oinarrian haur-populazioaren murrizketa gertatuko da, datozen urteetarako aurreikusita dagoen jaiotza kopurua txikitzeagatik. Nerabeak eta heldu-gazteak, ordea, ugaritu egingo dira, belaunaldi berriagoetan «hutsago» dauden belaunaldiak haien tokira iristean, hau da, joan den mendeko azken hiru bosturtekoetan jaiotako tokian mende honetako lehen hamar urteetan jaiotakoak, azken horietan jaiotza-tasa handitu egin baitzen. Azkenik, piramidearen tontorreko biztanleria ugaritzeko joera gero eta handiagoa izango da, batetik, adin horretara belaunaldi jendetsuak iritsiko direlako eta, bestetik, biztanleen bizitza-luzera gero eta handiagoa izango delako.

2.3. grafikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren piramideak. 2016 eta 2031.



Adin-talde handien bilakaerari dagokionez, 16 urtetik beherako biztanleriaren ezaugarria euren egonkortasuna da epe laburrean, 325.000 pertsona inguru, eta ondoren beheranzko joerari ekingo diote argi eta garbi (2.2 taula). Hala, aurreikuspenen arabera, 2031n adin-talde horretako biztanleak 285.000 izango dira, horrek esan nahi du 38.000 haur eta gazte gutxiago izango dela 2016rekin alderatuta, % 12 gutxiago. Nahiz eta kopuru hori handiagoa den azken hamarkadetan erregistratutako

minimoak baino (mende honen hasieran 265.000 pertsona), 1970eko hamarkadako bigarren bosturtekoan Euskal Autonomia Erkidegoan bizi ziren 16 urtez azpiko biztanleen erdia da. Bestalde, laneko adinean den taldeari dagokionez (16 eta 64 urte artekoak), murrizketa jarraitua izango da biztanleotan denbora-tarte osoan, eta, aurreikuspenen arabera, proiektzioaren horizontean 98.000 pertsona galduko dira, hau da, 2016an baino % 7 gutxiago. Bilakaera horrek aurreko mendearen amaieran laneko adinean ziren biztanleen gorako joera hautsi egingo du, baita mende honen lehen hamarraldian egonkortzekoa ere, eta, hala, proiektzioaren horizontean 1960ko hamarkadaren erdi aldeko datuetara bueltatzea dago aurreikusita. Azkenik, 65 urte eta gehiagoko biztanleriak hazteko joera jarraitua izaten segituko du, eta 2016n 465.000 pertsona izatetik 2031n 616.000 izatera igaroko dira; horrek esan nahi du adin nagusiko biztanleak % 32 gehiago izango direla. Termino erlatiboetan, 16 urtetik beherako biztanleek pisu apalagoa izango dute populazio osoarekin alderatuta, ia ehuneko bi puntu gutxiago (% 14,9tik % 13ra); 16 eta 64 urte artekoena ia bost puntu (% 63,7tik % 58,8ra), eta adin nagusikoen pisua, berriz, % 21,4tik % 28,2ra igoko da.

2.2. taula: Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren bilakaera eta proiektzioa adin-talde handien arabera. 2001-2031.

	Biztanleria milakotan				Banaketa erlatiboa				Besteko adinaren
	0-15	16-64	65+	Guztira	0-15	16-64	65+	Guztira	
2001	267,5	1.446,0	365,6	2.079,2	12,9%	69,5%	17,6%	100,0%	41,5
2006	273,0	1.450,9	391,5	2.115,4	12,9%	68,6%	18,5%	100,0%	42,9
2011	309,3	1.440,4	424,3	2.174,0	14,2%	66,3%	19,5%	100,0%	43,6
2016	324,0	1.382,7	465,2	2.171,9	14,9%	63,7%	21,4%	100,0%	44,8
2017	325,3	1.376,5	472,3	2.174,1	15,0%	63,3%	21,7%	100,0%	45,0
2018	325,9	1.369,4	480,7	2.176,0	15,0%	62,9%	22,1%	100,0%	45,2
2019	325,7	1.363,1	488,8	2.177,6	15,0%	62,6%	22,4%	100,0%	45,4
2020	324,0	1.358,3	496,7	2.179,0	14,9%	62,3%	22,8%	100,0%	45,6
2021	321,6	1.353,2	505,3	2.180,1	14,8%	62,1%	23,2%	100,0%	45,9
2022	318,9	1.347,4	514,6	2.180,9	14,6%	61,8%	23,6%	100,0%	46,1
2023	315,7	1.340,8	525,2	2.181,6	14,5%	61,5%	24,1%	100,0%	46,3
2024	311,9	1.334,5	535,8	2.182,2	14,3%	61,2%	24,6%	100,0%	46,6
2025	307,2	1.328,1	547,3	2.182,6	14,1%	60,9%	25,1%	100,0%	46,8
2026	302,9	1.321,7	558,4	2.183,0	13,9%	60,5%	25,6%	100,0%	47,0
2027	298,3	1.316,1	569,1	2.183,5	13,7%	60,3%	26,1%	100,0%	47,2
2028	294,0	1.310,0	580,0	2.184,0	13,5%	60,0%	26,6%	100,0%	47,4
2029	290,2	1.302,8	591,5	2.184,6	13,3%	59,6%	27,1%	100,0%	47,6
2030	287,7	1.293,4	604,2	2.185,3	13,2%	59,2%	27,6%	100,0%	47,8
2031	285,2	1.284,9	616,0	2.186,2	13,0%	58,8%	28,2%	100,0%	48,0


Oharra: biztanleria urtarilaren 1ean.

Biztanleriaren egitura-aldaketa adinen arabera nabarmen geratzen da modu sintetikoan, batez besteko adinaren bilakaeran: XXI. mendearen hasieran 41,5 urte zen, eta proiektatutako aldiari, 2016an 44,8 urte izatetik 2031n % 48,0 izatera igaroko da; hau da, 3,3 urte gehiago. Aldi berean, adin ertaina, 2016an 44,9 zena, 5,7 urte handituko da; hala, 2031n euskal biztanleen erdiek baino gehiagok 50 urte edo gehiago izango dituzte.

Hezkuntza-sistema izan da azken hamarkadetakoa dinamika demografikoan aldaketa gehien izan dituen esparruetako bat (2.4 grafikoa). Eskola-adinean diren biztanle guztiek epe ertainean beharrezko joera ageri badute ere, ibilbideak eta erritmoak desberdinak izango dira hezkuntza-ziklo

batzuetan eta besteetan, jaiotza-tasen mailetan diren gorabeherak, denboran zehar, eragiten duten ahala. Eskolaurreko biztanleek murrizten joateko joerari eutsiko diote, harik eta 2028an 49.000 pertsonaz azpiko minimo batera iritsi arte; hortik aurrera, goranzko joera apala abiaraziko da. Haur-hezkuntzan eskolatutako biztanleek beheranzko joera izango dute denbora-tarte osoan, eta 2016 eta 2031 artean biztanle horietan % 21eko murrizketa dago aurreikusita. Lehen Hezkuntzako zikloan, azken urteetako goranzko joerari eutsiko zaio, eta ia 129.000 biztanleko maximoa lortuko da 2018an; ondoren, beheranzko joera jarraitua hasiko da, ziklo horretara jende gutxiagoko taldeak iristen diren heinean, harik eta 2031n 2009an lortutako zifren tankerakoak lortu arte. Azkenik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako adinean diren biztanleek ere antzeko joera izango dute, nahiz eta denboran desplazatua: 88.000 pertsonako maximoa izango du 2024an, 2016an baino % 13 gehiago, eta, ondoren, biztanle horiek beheranzko joerari ekingo diote.

2.4. grafikoa: Biztanleriaren garapena eta proiekzioa hezkuntza-zikloetan. 1982-2031.



Oharra: biztanleria urtarilaren 1ean.

Etorkizuneko dinamika demografikoak, era berean, eragin garrantzitsuak izango ditu lan-merkatuan (2.3 taula). 16 eta 64 urteko biztanleak murriztuta –proiekzioaren horizontean 1,29 milioi pertsona izango baitira–, barne-egituraren zahartze-egoera gertatuko da. Prozesu horren arrazoia zera da, jaiotza-tasa handiko epealdietan jaiotako belaunaldi ugariak adin heldu-nagusietara progresiboki igarotzea eta gero eta kohorte urriagoak iristea haien tokira. Hala, 1990eko hamarkadaren erdi aldera arte, laneko adinean ziren biztanleen % 45 inguruk 35 urte baino gutxiago zituen; 2016an, berriz, % 29 jaitsi zen ehuneko hori. Joera horrek jarraitu egingo du epe ertainean, nahiz eta ondoren haien partaidetza igotzen hasiko den 16 eta 64 urte bitarteko biztanleetan, eta, aurreikuspenen arabera, 2031n biztanle potentzialki aktiboaren % 32k 35 urte baino gutxiago izango ditu. Aldi berean, 55 urtetik gorakoen pisu erlatiboa 5 puntu baino gehiago igoko da (2001ean biztanleen % 16 ziren); hala, 2016an % 21,1 izatetik 2031n % 26,4 izatera igaroko dira.

2.3. taula: Euskal Autonomia Erkidegoko 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren eta haien barne-egituraren garapena eta proiektzioa. 2001-2031.

	Biztanleri miletan					Guztira	RDD	IRPA
	16-24	25-34	35-44	45-54	55-64			
2001	252,6	345,5	333,5	286,2	228,2	1.446,0	43,8	1,304
2006	194,4	347,3	344,7	306,9	257,5	1.450,9	45,8	0,921
2011	169,0	305,3	358,2	334,8	273,2	1.440,4	50,9	0,711
2016	161,2	235,6	352,6	341,1	292,3	1.382,7	57,1	0,653
2017	163,2	225,8	346,3	343,4	297,8	1.376,5	57,9	0,652
2018	165,3	218,2	337,9	345,8	302,3	1.369,4	58,9	0,645
2019	168,1	211,9	328,7	347,0	307,5	1.363,1	59,8	0,641
2020	172,2	206,7	317,5	347,7	314,2	1.358,3	60,4	0,647
2021	176,7	202,5	305,5	349,5	319,1	1.353,2	61,1	0,653
2022	180,4	199,9	292,4	351,9	322,7	1.347,4	61,9	0,653
2023	183,9	199,0	279,6	353,0	325,2	1.340,8	62,7	0,653
2024	188,0	198,3	267,6	353,6	327,0	1.334,5	63,5	0,658
2025	192,0	199,2	257,0	351,9	328,0	1.328,1	64,3	0,666
2026	195,0	201,0	247,7	348,6	329,4	1.321,7	65,2	0,672
2027	198,2	203,2	239,5	343,4	331,9	1.316,1	65,9	0,680
2028	200,6	205,6	233,0	336,2	334,6	1.310,0	66,7	0,686
2029	201,7	209,0	227,8	328,2	336,1	1.302,8	67,7	0,685
2030	201,3	213,2	223,5	318,2	337,3	1.293,4	69,0	0,679
2031	201,1	217,3	220,0	307,4	339,3	1.284,9	70,1	0,674


Oharra: biztanleria urtarilaren 1ean.

Analisi dinamikoak, lanerako lehen adinean sarturiko kohorteetako pertsonen (16 eta 24 urte artekoa) eta adin hori izateari uzten dioten (58-66 urte artekoa) garapena alderatuta, adierazten du lan-merkatuarekiko presio demografiko txikiagorako joera mantenduko dela. 2004. urtetik aurrera, eta hemen erabilitako definizioan oinarrituta, biztanleria potentzialki aktiboaren ordezkapen-indizea (IRPA, gaztelaniazko siglen arabera) unitatetik beherakoa da, hau da, irteeren kopuruak sarreraren kopurua gainditu du, eta, aldiz, 1970eko hamarkadaren bigarren erdian enpleguaren gainean egiten zuen presioa handia zen, laneko adinean zirenen sarrerak irteerak baino bi aldiz gehiago baitziren orduan. Datozen urteetan indize horrek murrizten jarraituko du, eta 2019an izango da minimoa, 64 sarrera 100 irteerako; ondoren, igotzen hasiko da poliki-poliki, harik eta 67 sarrera izatera iritsi arte proiektzioaren horizontean.

Adineko biztanleak, 65 urte eta hortik gorakoak, ugarituko egingo dira, 151.000 biztanle inguru gehiago; hala, EAEko biztanle guztien % 28,2 izatera igaroko dira 2031n (2.4 taula). Hazkunde-erritmo handienak adin nagusiko biztanleetan gertatuko dira, eta horrek adineko pertsonen kolektiboren «gainzahartze-prozesua» indartzea ekarriko du. 2016 eta 2031 artean, 65 eta 74 urte bitarteko biztanleek eta 75 eta 84 urte artekoek % 29ko hazkunde erlatiboa izango dute; 85 eta 94 urte artekoak, berriz, % 37 ugarituko dira; azkenik, 95 urtetik gorakoak % 250 ugarituko dira. Hondoko joera horrekin batera, adineko biztanleak osatzen dituzten adin-taldeen bilakaera Gerra Zibilaren eta gerraostearen garaian jaiotakoen igarotzeak modulatu du (2.5 grafikoa). Efektu hori argi eta garbi ikusten da 75 eta 84 urte bitarteko biztanleen bilakaeran, talde horretako kideak murriztu egingo baitira epe oso laburrean, adin horietan jende gutxiagoko taldeak diren aldetik eta epe ertainean igoko diren

aldetik. Adin nagusiko biztanleen bilakaeraren beste ezaugarri bat sexuen arteko desoreka murriztea izango da, nahiz eta adin nagusiko biztanleen artean «feminizazio» handia izango den oraindik. Hala, 2016 eta 2031 artean, 65 urteko eta hortik gorako biztanleen artean, emakumeen kopurua 100 gizoneko 137 emakume izatetik 129 emakume izatera igaroko da; 85 urteko eta hortik gorakoen artean, berriz, 100 gizoneko 227 emakumetik 185 emakumera jaitsiko da.

2.5. grafikoa: Adineko biztanleen bilakaera eta proiektzioa, adin-segmentuen arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa, 1982-2031.



Oharra: biztanleria urtarilaren 1ean.

2.4. taula: Euskal Autonomia Erkidegoko 65 urteko eta hortik gorako biztanleen osaketaren bilakaera eta proiektzioa. 2001-2031.

	2001	2006	2011	2016	2021	2026	2031
65+ biztanleriaren (milaka)	365.644	391.544	424.298	465.174	505.254	558.432	616.050
% guztizkoaren gainean	17,59%	18,51%	19,52%	21,42%	23,18%	25,58%	28,18%
65-75 / 65+	58,60%	52,20%	47,77%	49,68%	49,06%	48,29%	48,18%
75-84 / 65+	31,53%	36,88%	38,75%	34,34%	32,28%	33,92%	33,48%
85-94 / 65+	9,29%	10,16%	12,55%	14,91%	16,99%	15,43%	15,46%
95+ / 65+	0,58%	0,76%	0,94%	1,07%	1,67%	2,35%	2,87%
Feminizazio indizea 65+	140	140	139	137	134	132	129
Feminizazio indizea 85+	280	276	250	227	207	199	185

Oharra: biztanleria urtarilaren 1ean.

Adin-talde handien bilakaera desberdinak mendekotasun demografikoaren harremana handitzeko joera indartuko du. Mendearen hasieran harreman hori 43 pertsonakoa zen; 2016an 57 izatera igaro zen, eta, aurreikuspenen arabera, 2031n 70 gazte eta adineko izango dira 16 eta 64 urte arteko 100 pertsonako. Bilakaera horretan mendekotasun demografikoaren harremanaren zatian egonkortasunak kontraste egiten du, gazteen eraginez, 16 urtetik beherako 22-23 gazte izango baitira laneko adinean diren 100 pertsonako; adinekoetan hazkunde handia izango da, eta 65 urteko eta hortik gorako pertsonen kopurua 16 eta 64 urte bitarteko 100 pertsonako 34 lagunetik 48 izatera igaroko da.

2.3 Lurralde historikoen etorkizuneko dinamika demografikoa. 2016-2031

Populazioaren etorkizuneko bilakaerak joera kontrajarriak izango ditu; hala, biztanleak ugaritu egingo dira Araban eta Gipuzkoan, eta Bizkaian, berriz, murriztu (2.5 taula). Joera horiek lurraldeetako hazkunde demografikoaren osagaietan zeinuan eta bolumenean izandako desberdintasunen ondorio dira (2.6 grafikoa).

- Araba izango da lurralderik dinamikoena demografiari dagokionez, eta bertako populazioa % 4,8 handituko da 2016 eta 2031 artean. Urteko hazkunde-tasa % 3,1 izango da; hau da, azken bosturtekoan erregistratutakoa baino handiagoa, baina mendeko lehen hamarkadakoa baino txikiagoa (urte haietan Arabako biztanleak urteko % 11,3 handitu ziren). Lurralde horren dinamismo handiena EAE osoko migrazio-hazkundearen tasen emaitza izango da, baita hasierako urteetan jaiotza naturalak apur bat positiboago eta epe ertainean hain negatibo ez izatearen ondorio ere. Denboraldi osorako, aurreikusten da osagai naturalak 300 pertsona kenduko dituela, eta migrazio-saldo garbiak, berriz, 16.000 biztanle ekarriko dituela.
- Bizkaian, biztanleen kopurua 29.000 pertsona inguru murriztuko da; hau da, % 2,6 gutxiago. Biztanleria murrizteko ibilbide hori 2012an hasi zen, eta epe labur eta ertainean hala izaten jarraituko du, nahiz eta azken urteetan erregistratutako erritmoan baino askoz ere motelagoan. Dinamika demografikoaren ezaugarria hazkunde natural gero eta negatiboagoa izango da 2016-2030 aldiko urte guztietan, eta 56.000 biztanle pasatxo galduko ditu. Migrazio-saldoa positiboa izango den arren, migrazio-tasa garbi apalena duen lurraldea izango da, eta biztanleria 27.000 lagun handituko da migrazioagatik.
- Gipuzkoan biztanleria ia % 4 ugarituko da; hau da, 2016an baino 28.000 biztanle gehiago. Biztanleriaren hazkunde-tasa, Araban bezala, 2011-2016 bosturtekoan erregistratutakoa baino


handiagoa izango da, baina mendearen lehen hamarkadako balioetatik urrun. Lurralde horretan migrazio garbiaren tasak % 4 ingurukoak izango dira, eta hazkunde naturala, berriz, negatiboa izango da aldi osoan. Oro har, jaiotzen eta heriotzen arteko aldeak 18.000 pertsona murriztuko du biztanleria, eta migrazio-saldoak 46.000 inguru ekarriko.

2.5 taula: Lurralde historikoetako biztanleriaren bilakaera eta proiektzioa. 2001-2036.

	Biztanleria milakotan			Aldakuntza erlatiboa (2016 = base 100)			Banaketa erlatiboa		
	Álava/Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Álava/Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Álava/Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
2001	284,6	1.122,2	672,4	88,3	98,5	94,6	13,7%	54,0%	32,3%
2006	301,8	1.127,3	686,3	93,6	99,0	96,6	14,3%	53,3%	32,4%
2011	318,7	1.152,4	702,9	98,9	101,2	98,9	14,7%	53,0%	32,3%
2016	322,3	1.138,9	710,7	100,0	100,0	100,0	14,8%	52,4%	32,7%
2017	323,7	1.137,2	713,1	100,4	99,9	100,3	14,9%	52,3%	32,8%
2018	325,1	1.135,5	715,4	100,9	99,7	100,7	14,9%	52,2%	32,9%
2019	326,4	1.133,7	717,6	101,3	99,5	101,0	15,0%	52,1%	33,0%
2020	327,6	1.131,8	719,7	101,6	99,4	101,3	15,0%	51,9%	33,0%
2021	328,7	1.129,7	721,6	102,0	99,2	101,5	15,1%	51,8%	33,1%
2022	329,8	1.127,7	723,5	102,3	99,0	101,8	15,1%	51,7%	33,2%
2023	330,8	1.125,5	725,3	102,6	98,8	102,0	15,2%	51,6%	33,2%
2024	331,8	1.123,4	727,0	102,9	98,6	102,3	15,2%	51,5%	33,3%
2025	332,7	1.121,3	728,7	103,2	98,5	102,5	15,2%	51,4%	33,4%
2026	333,5	1.119,2	730,3	103,5	98,3	102,8	15,3%	51,3%	33,5%
2027	334,4	1.117,1	732,0	103,7	98,1	103,0	15,3%	51,2%	33,5%
2028	335,2	1.115,1	733,6	104,0	97,9	103,2	15,3%	51,1%	33,6%
2029	336,0	1.113,2	735,3	104,3	97,8	103,5	15,4%	51,0%	33,7%
2030	336,9	1.111,5	737,0	104,5	97,6	103,7	15,4%	50,9%	33,7%
2031	337,7	1.109,8	738,7	104,8	97,4	103,94	15,4%	50,8%	33,8%

Oharra: biztanleria urtarilaren 1ean.


2.6. grafikoa: Lurralde historikoetako biztanleriaren hazkundearen osagaien garapena eta proiektzioa. 2001-2030



Lurralde historikoetako biztanleriaren bilakaera desberdin horiek azkeneko bosturtekoetako joera luzatuko dute: biztanleriaren portzentajea pisu erlatiboa handitzen joango da progresiboki Araban, eta berreskuratzen hasiko da Gipuzkoan, Bizkaiaren kaltetan, EA Eren barruan. 2031. urtean, biztanleriaren % 15,4 Araban biziko dela aurreikusten da (2001ean baino % 1,8 gehiago), % 50,8 Bizkaian (% 3,2 gutxiago mende hasieran baino) eta % 33,8 Gipuzkoan.

Lurraldeetako biztanleriaren piramideen aldaketa, neurri handienez, Euskal Autonomia Osorako deskribatutakoaren oso antzekoa izango da; hau da, adin nagusietara belaunaldi jendetsuak iritsiko dira eta helduetara, berriz, talde ez horren jendetsuak (2.7 grafikoa). Edonola ere, piramideak 2031n alderatuta, lurraldeetan hainbat berezitasun topatuko ditugu, hala nola Araban eta Gipuzkoan haurren biztanleriak pisu handia ez izatea edota erretiroaren inguruko adinean diren pertsona gehiago izatea Bizkaian. Alde horiek biztanleen batez besteko adinean ere islatzen dira: 2031n 47,1 inguruan izango da Araban eta Gipuzkoan, eta 48,9 urte Bizkaian.

2.7. grafikoa: Lurralde historikoetako biztanleriaren piramideak. 2016 eta 2031.



Lurraldeetako adin-talde handien araberako egituraren ezaugarri komuna zera da, haietan guztietan murriztu egiten direla biztanle haurrak eta helduak, eta adinekoak, berriz ugartu. Edonola ere, alde esanguratsuak nabari dira eraldaketa horien intentsitateari dagokionez (2.6 taula). Hala, haurren populazioari erreparatuta, Araban % 4ko murrizketa ikusiko dugu, eta horrek kontraste egiten du Bizkaiko 16 urtez azpikoen % 16ko murrizketarekin 2030ean. Alde hori, oinarri-oinarrian, bi lurraldeen arteko ugalkortasun-maila desberdinek eraginda dago, eta ugaltzeko adinean diren emakumeen murrizketa handiagoak ere bai. Adin helduetan, aldaketaren maila ere desberdina da: % 2 galduko da Gipuzkoan, eta Bizkaian, berriz, % 11. Faktore determinatzaileak izango dira horretan aurreko

hamarkadetako jaiotzen bilakaera eta bi lurraldeek migrazio-fluxuak erakartzeko duten gaitasun desberdina. Azkenik, 65 urtekoen hazkunde handiak intentsitate handiena Araban izango du, eta hazkunde erlatibo txikiena, berriz, Bizkaian (izan ere, gaur egun egitura zahartuena bertan da). Eboluzio horien ondorioz, Bizkaiak jarraituko du egitura demografiko zahartuena izaten EAE osoan, eta Gipuzkoak Araba ordezkatzeko du adineko populazioaren pisu erlatibo txikiena duen lurraldea izaten.

2.6 taula: Lurralde historikoetako biztanleria, adin-talde handien arabera. 2016 eta 2031.

		Biztanleria milakotan		Aldakuntza		Banaketa erlatiboa	
		2016	2031	Osoa	Erlatiboa	2016	2031
Álava	0-15	50,8	48,8	-2,0	-3,9%	15,8%	14,5%
	16-64	207,6	197,6	-10,0	-4,8%	64,4%	58,5%
	65+	63,9	91,2	27,4	42,8%	19,8%	27,0%
	Guztira	322,3	337,7	15,3	4,8%	100,0%	100,0%
Bizkaia	0-15	161,9	135,1	-26,8	-16,5%	14,2%	12,2%
	16-64	727,0	650,1	-76,9	-10,6%	63,8%	58,6%
	65+	249,9	324,5	74,6	29,9%	21,9%	29,2%
	Guztira	1.138,9	1.109,8	-29,1	-2,6%	100,0%	100,0%
Gipuzkoa	0-15	111,3	101,3	-10,0	-9,0%	15,7%	14,2%
	16-64	448,1	437,2	-10,9	-2,4%	63,0%	59,5%
	65+	151,4	200,3	48,9	32,3%	21,3%	26,3%
	Guztira	710,7	738,7	28,0	3,9%	100,0%	100,0%

Oharra: biztanleria urtarilaren 1ean.

Organismo Autónomo del



Eustat

EUSKAL ESTATISTIKA ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE ESTADÍSTICA
www.eustat.eus

www.eustat.eus